

ANDER GILLENEA



Pentsamenduari buruzko liburuak euskaraz

Gaiak eta Jokin argitaletxeek Unibertsitateko Gaietarako Liburutegia eta bilduma horretako lehen hiru tituluak aurkeztu zituzten atzo, Nietzsche Kant eta Hegelen pentsamendua biltzen dituztenak. Liburuok Gipuzkoako Kultura eta Euskara departamenduak zientzia eta jakitearen inguruko irakurketak sustatzeko asmoz iaz egindako deialdiaren emaitza dira. Joxe Azurmendi Jakinekoak azaldu zuenez, filosofiari buruzko oinarritzako irakurgai sinpleak dira, batxilergoko azken ikasturteetako ikasleei, unibertsitateko lehenengo mailetakoei eta pentsamenduan interesa duen edonori zuzendutakoak. Gehienak autore atzerritarrei buruzkoak izan arren, euskal pentsamenduaren historiari buruzkoak ere osatuko dituzte aurrerantzean. Urtean hiruzpalau liburu argitaratzeko asmoa dute.

Kalean da euskaraz jardun nahi duten dendariantzako eskuliburua

Merkataritza arloan hizkuntza normalizazioa bultzatzea du helburu argitalpenak

Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak eta Gipuzkoako Diputazioak babestuta, Elhuyarrek **Merkataritza euskaraz** izeneko eskuliburua argitaratu du. Eguneroko lana euskaraz egin nahi duten merkatarientzako «**txuletarioa**» da liburua, Itziar Nogeras egileak aurkezpenean esan zuenez.

Jone Larrañaga / Donostia

EUSKARAZ jardun nahi duten dendariak eguneroko jardunerako behar dituzten jakingarriak erraztasunez ulertzeko moduan biltzen ditu eskuliburuak, oso modu xamurrean. Zortzi ataletan banatuta, euskara txukunean aritzeko ereduak topa ditzake irakurleak. Inprimakiak, txartelak eta gutunak nola idatzi edota erakusleihoetako kartelak, ordutegiak, datak eta antzekoak nola erabili jakin ahal du erabiltzaileak eskuliburura joz gero. Horrezaz gainera, hizkuntzari buruzko argibide zenbait eta dendariak eguneroko erabiltzen dituzten hitzekin osatutako hiztegi laburra ere biltzen du eskuliburuak.

Beraz, merkatariei zuzenduta

egindako lana izan arren, haiek trebatzen dituztenentzat eta euskara teknikarientzat ere liburu erabilgarria da argitaratu berri dena, atzo egileak berak iritzi zioenez.

Euskararen normalizaziorako urrats garrantzitsua • Inaki Irababalbeitia Elhuyarreko lehen-dakariak atzoko aurkezpenean azpimarratu zuenez, merkataritza euskara sustatu eta hizkuntza normalizazioa bultzatzeko beste urrats bat da horrelako liburu bat argitaratu izana. Zientzia Elkarteko lehendakariak gogora ekarri zuen nola orain urte dextente langileak euskaraz ari zitezen trebatzeko ikastaroak egiten hasi ziren, baina, enpresa mundua ia osotara erdalduna izanik, arlo hori euskalduntzea ez zela lortu orduko saio hartan. Horregatik erabaki zuten urrats bat aurrera egin eta enpresa bera euskalduntzera jotzea. Ahalegin horretan ari dira orain zortzi bat urtez geroztik CAF, Kutxa eta beste enpresa zenbaitekin elkar-lanean.

Lan hori hartu zuten oinarritzat ekimena merkataritza mundura ere zabaltzeko. Siade-cok emandako datuak eta herri askotan merkataritza eta udalen artean egin diren hitzarmenak kontuan hartuta lortu dute azkenean eskuliburu erabilgarri eta erraza osatzea.

Imanol Elorriaga Gipuzkoako Merkataritza Ganbarako lehen-dakariak azaldu zuen eskuliburu bat izatea «behar-beharrezkoa» dela merkataritza arloan hizkuntza normalizazioa lortu ahal izateko. Euskara lagunduta, gainera, merkataritza arloa bera ere hobetuko egingo dela erantsi zuen.

Aizarna: «Liburua erabiltzea, zikintzea falta da orain» • Koruko Aizarna Gipuzkoako Diputazioko Kultura eta Euskara diputatuak ere ildo beretik jo zuen. Hizkuntza normalizatuko bada euskara arlo guztietara zabaltzea behar dela azpimarratu zuen, horien artean merkataritza mundura. Kultura diputatuak aipatu zuen dendari askok euskaraz jakin arren gaizki mintzatuko diren beldurrez erdarara jotzen dutela. Beharrezkoa jo zuen, baina, konplexu horiek gainditu eta euskaraz jardutea eguneroko lanean. «Eskuliburua hemen dugu, orain falta da erabilia izatea. Zikin dezatela dendariak, azpimarra dezatela... seinala ona izango da hori», adierazi zuen.

Merkatarientzako eskuliburuak 1.750 pezeta (70 libera) balioko du, eta liburutegia guztietan egongo da eskura hemendik aurrera interesa duen edonork eros dezan. Lehen argitalpen honetan 15.000 ale jarri dituzte kalean. X

Ugaltzeko eskubideen ukatzeak milioika emakume hiltzen ditu urtero munduan

■ **NBEk egindako txostenak dio berdintasuna eta garapena oztopatu egiten dituela horrek**

Efe / New York

MINUTURO emakume bat hiltzen da munduan haurdunaldiarekin lotutako arazoek eraginda; 200.000 amek bizia galtzen dute urtero antisorkuntza zerbitzu egokirik jasotzen ez dutelako eta beste 70.000 hiltzen dira egoera txarretan abortatzeagatik. Horiek dira NBEko Poblazio Fonduak eskubide sexualen ukatzeaz egin duen azterketak azpimarratzen dituen ondoriatariko batzuk.

Lan horren arabera, eskubide sexualen edo ugaltzeko eskubideen ukatzeak urtero milioika emakume hiltzen ditu eta beste askoren osasuna nabarmen okertzen du, batez ere garapen bidean diren herrialdeetan. Datu horiek kontuan hartuta azterketak azpimarratzen du berdintasuna eta garapenak aurrera egin dezan oztopatu egiten dela.

Aukeratzeko eskubidea izeneko txosten horretan adierazten denez, ugalketa zerbitzuetan dauden gabeziak eta «emakumearen kontrako diskriminazio eta biolentzia orokortuak» kontuan hartuta, emakumezkoen giza eskubideen kontrako «bortxaketa masiboak» hitz egin liteke. X

Hanka Gorri Jatorriak
AURKEZTEN DU:

Saltsa TRONIK

Egunkaria ren **AZKEN PRODUKZIOA**

Jolas, musika eta antzerkiz egindako saltsa,
hirutik ehun urtera bitarteko gazteentzat.

Informazioa: 943-300222 - 218963